



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**GORPUTZ HEZKUNTZA ETA ESKOLA  
KIROLA ETA GENEROA GENERO  
PERSPEKTIBA KONTUTAN IZANDA  
GRADU BUKAERAKO LANA**

EGILEA: Urruzmendi Lizeaga, Onditz

ZUZENDARIA: Vizcarra, Mariate

**2021**

# LABURPENA

## **Laburpena:**

XXI.mendeko hezkuntzaren helburuetako bat ikasleak generoarekiko berdintasunean heztea da. Hezkuntzak ikasleak gizartearen ezaugarrietara ahalik eta hobekien moldatzeko ardura hartu behar du eta gizarte hori eraldatzen saiatzeko kontzientzia ere. Azken urteetan generoaren gaiak aurrera pausu nabarmenak eman ditu baina, oraindik ere urrats oso garrantzitsuak egiteke daude. Horrela lan honen helburua, gaur egungo Gorputz Hezkuntza eta eskola kirolaren analisi bat egitea izango da eta generoaren inguruko ondorio ezberdinak ateratzea lan horretan dabilzan profesional ezberdinen laguntzarekin.

**Hitz gakoak:** Generoa, berdintasuna, Gorputz Hezkuntza, eskola kirola, heziketa.

## **Resumen:**

Uno de los objetivos de la educación en el siglo XXI es la educación del alumnado en igualdad de género. La educación debe responsabilizarse de que el alumnado se adapte lo mejor posible a las características de la sociedad y la conciencia de intentar transformarla. En los últimos años el tema del género ha dado paso importantes pero todavía quedan pasos muy importantes por dar. Así, el objetivo de este trabajo será realizar un análisis de la Educación Física y del deporte escolar actual y extraer diferentes conclusiones sobre el género con la ayuda de diferentes profesionales que trabajan en el mismo.

**Palabrasclave:** Género, igualdad, Educación Física, deporte escolar, educación.

## **Abstract:**

One of the objectives of education in the 21st century is the education of students in gender equality. Education must take responsibility for the students to adapt as best as possible to the characteristics of society and the awareness of trying to transform it. In

recent years the issue of gender has taken important steps but there are still very important steps to take. Thus, the objective of this work will be to carry out an analysis of Physical Education and current school sports and draw different conclusions about gender with the help of different professionals who work in it.

**Keywords:** Gender, equality, Physical Education, schoolsport, education.

# Aurkibidea

Laburpena: .....	2
1.Sarrera.....	5
2. Marko Teorikoa.....	6
2.1-Kirolaren sorrera eta garapena:.....	7
2.2-Komunikabideen garrantzia.....	9
2.4-Kirol pratiken eremuak:.....	10
2.5.-Eskolaren funtzioa.....	11
2.6.-Axular Lizeoan Covid dela eta GHan hartu diren neurriak .....	12
3.- Helburua:.....	14
4.- Metodoa.....	14
4.1- Prozedura .....	14
4.1.1.-Informazioa biltzeko tresna: .....	14
4.1.2.-Parte hartzaileak: .....	15
4.2.-Analisia nola egin da?.....	15
4.3.konpromiso etikoa .....	15
4.4.-Lanaren Kronograma.....	15
5- Emaitzak .....	15
5.1- Genero perspektiba eta kirola .....	16
5.2- Generoa Gorputz Hezkuntzan.....	16
5.3- Generoa eskola kirolean.....	18
5.4- Covid-19aren eragina .....	24
5.5- Etorkizunari begirada .....	26
6.- Ondorioak.....	27
7.-Erreferentziak.....	29
8.-Eranskinak .....	33

## **1.Sarrera**

Gizartea eraldatzen ari da azken urteotan eta eraldaketa horretan berebiziko garrantzia hartzen ari den gaia da generoarena. Irakasleek gizartea eraldatzeko prozesu horretan sekulako indarra izan dezakete eta horregatik beharrezkoa da generoaren inguruko formakuntza izatea. Nire formakuntzan ez dut aukera izan gaia behar bezala lantzeko eta horrek gai hau interesgarri ikustea eta lan honetarako aukeratzea ekarri du.

Lanaren hasieran, marko teorikoa garatzen da, horrela ondoren ulertu beharreko kontzeptuak argituko dira. Txostenaren ulergarritasunean eta sakonketan lagunduko duten kontzeptuak izango dira hizpide. Bigarren zati batean, irakasle ezberdinei egindako elkarrizketa ezberdinak agertuko dira, 5 atal ezberdin banatu ditudan galdetegia: genero perspektiba eta kirola, generoa eta Gorputz Hezkuntza, generoa eta eskola kirola, covid 19aren eragina eta etorkizunera begirada. Azkenik, marko teorikoa eta elkarrizketen iritziak kontuan izanda, generoaren inguruko ondorio eta hausnarketa izango da azken atala.

## 2. Marko Teorikoa

Indarra, abiadura, potentzia, erresistentzia edo oldarkortasuna... kirolariaren oinarrizko ezaugarritzat hartu dira. Emakumea aldiz, delikatu, hauskorra edo menpekotasuna gisako ezaugarriekin lotua izan da (Azurmendi eta Murua 2010). Horrela, emakumeak, kirol-mundutik albo batera geratuak edo urrunduak izan dira, tamalez oraindik ere entzuten diren hainbat esaldi sexistekin. Kasu batzuetan emakumezkoek kirol zehatzak egiten zituzten baina, gizonezkoen kirolak gizartean zuen protagonismo edo eragiteko gaitasunaren itzalean geratzen ziren (Naberan 2017).

Geroz eta gehiago lan egiten da mundu mailan gizarte bidezkoago bat osatzeko. Egoera ekonomiko, sozial eta politikoetan gizonezkoen eta emakumezkoen presentzia bera izatea justizia baldintza bat da. Kirola gizartea antolatzeke oinarrizko jardura da, bizitza ikusteko eta antolatzeke kultura edo modua. Genero aniztasuna kontuan hartuta, kirolak funtzio garrantzitsua du neska eta mutilen gizarteratzean eta beren bizitzan hartuko dituzten jarrera eta portaeratan. Ondorioz, Gorputz Hezkuntzako jarduerak tresna oso interesgarriak dira integrazioerako eta berdintasuna sustatzeko. Finean, aukera paregabea jokabide ezberdinak ikasteko eta irakasteko ere (Gallego, 2014).

Azken urteotan ere aurrerapen eta aldaketak egiten ari dira gai honen inguruan, baina, oraindik ere, Gallegok (2014) dio kirol errealitatearen azterketak argi eta garbi erakusten duela nesken eta emakumeen parte hartzea, gizonezko eta mutilena baino txikiagoa dela. Eta honetaz gain, Otegik (2018) ere aipatzen du neskek eskola adinean mutilen baino lehenago uzten dutela ere kirola.

Azterketa horien emaitzetan arrazoi biologikoak ere izan dezake eragina. Naberanek dio (2017) orokorrean emakumeek gizonezkoek baino malgutasun gehiago izaten dutela, estrogeno gehiago, gantz ehuneko altuagoa, masa muskular gutxiago eta aldiz, gizonezkoak hobek izan ohi direla abiaduran, erresistentzian eta indarrean.

Baina, arrazoi nabarmenena hezkuntzarena da, horrek eragiten duelarik izaera sexista nabarmenak izatea kirolaren zereginetan, gizonezkoak eta emakumezkoak maila ezberdinetan kokatuz. Hezkuntzaz hitz egitean, ez dut bakarrik eskolako formakuntzaz hitz egiten. Pertsonen gizarteratzean eskolak eragin handia du baina, ez da elementu bakarra. Familiak, lagunak edo hedabideek duten garrantzia ere azpimarratu behar da

eta eskolarekin batera, pertsonaren nortasuna eraikitzeke agente sozializatzailerak dira (Gallego 2014).

Fernández et al., (2010) oraindik ere, familia, eskola edo hedabide askotan, mutilentzako eta neskentzako kirolak daudela agertzen dela eta trataera egiterako orduan ezberdintasun nabarmenak antzematen direla diote. Era berean, lan munduan ere emakumeek zenbait oztopo gainditu behar izaten dituzte: lan prekarietatea, laguntza murriztagoak, soldata baxuagoak... horrela, kirolerako edo jarduera fisikorako duten denbora eta baliabideak mugatuz.

Kirol federatuaren estadistikako (2020) datu zehatzak ematen hasita, 2019.urtean, EAEn emakumeen federazio lizentziak 74.524 ziren eta aldiz, gizonezkoenak 206.406. Ondoren, 2020 urtean, emakumezkoen federazio lizentziak 73.670 izan ziren eta aldiz, gizonezkoenak, 192.941. Hau da, federazio lizentzian ia 3 aldiz gehiago dira federatutako gizonezkoak emakumezkoak baino.

Datuekin jarraituz, Espainiako kultura eta kirol ministerioak 2019an emandako datuen arabera, kirol bakoitzeko federatutako lizentzia guztietatik emakumezkoen kopurua handiagoa da gizonezkoena baino soilik 5 kirol hauetan: Gimnasia, kirol dantza, boleibola, patinaia eta hipika.

## **2.1-Kirolaren sorrera eta garapena:**

Garai batean kirola jarduera baztertzailerak izan zen. Batetik, gizarteko eliteko kideek soilik egiteko aukera zutelako eta bestetik, soilik gizonezkoak egiteko aukera zutelako (Rodríguez, Mateos eta Martínez 2004).XIX.mendean Ingalaterran kirola bitarteko garrantzitsua izan zen familiak egituratzeko orduan. Kirol jarduerak izaera maskulino nabarmena zuten eta emakumezkoa aisialdirako praktika horietatik urrun eta baztertuta geratzen zen. Kirolak gizartean funtzio ezberdinak betetzen zituen: Batetik, naziotasuna sustatzeko balio zuen, naziotasun hori gizonezkoen ezaugarriekin lotzen zen eta bestetik, kirola gizontasunaren adierazpen gorena zen, gizontasun, maskulinitate eta maila intelektualari dagokonez arazo gutxi izatearen parekoa (Rodríguez, Mateos eta Martínez 2004).

Garai horretako gizarte viktoriarrek feminitateaz duen irudiak emakumea, delikatu, hauskorra, dotorea, menpekota eta otzana izatera behartzen zuen, kirolaren bidez garatu nahi ziren balioen ezaugarri antagonikoak izanik, gizentasuna, kemena edo izaera besteak beste. Ezaugarri horiek oinarrizko gaitasun fisikoen bidez adierazten ziren, hala nola indarraren, abiaduraren erresistentziaren eta potentziaren bidez. Ezaugarri hauek gizonezkoen estatus sozial, politiko eta ekonomiko bat ematen zien. Banaketa hori garaiko emakumearen ikuspegi biologikoetan oinarritzen zen. Genero ezberdintasuna bermatzeko medikuntza arloko mito eta tradizioek indar handia izan zuten eta emakumea kirolatik urrun mantendu zen (Rodríguez, Mateos eta Martínez 2004)

Bereizkeria honen adibide gorena da XIX.mendeko kirolarekin sortzen den ekitaldi nagusia, Olimpiar Jokoak. Lehenengo jokuetan, 1896an Atenasen, ez zen emakumezkoen agerpenik izan eta 1900.urtean soilik golfean eta tenisean hartu zuten parte, guztira 6 emakume izanik (Martínez, 2009).Rodríguez, Mateos eta Martínezek (2004) dioten bezala, Pierre de Coubertin, pedagogo eta historialari Frantziarra eta Olimpiar Jokoen sortzailea, emakumezkoen parte hartzearen aurkakoa zen. 1912.urtean, idatzitakoa da horren adibide garbiena: Olimpiar jokoak gizonezkoentzat soilik izan beharko luketela eta proba guztietan emakumeen parte hartzea onargarria ez zenez, parte hartzea ez zen baimenduko eta emakume horien funtzioa Antzinako Greziako Jokoetan bezala garailea omentzea izango zen.

1928 urteko Amsterdaneko Joku Olinpikoak emakumeen parte hartzea oso hutsala izan zen eta gehienbat kirol minoritarioetan. 1928. urte horretan emakumeek %10eko presentzia izan zuten eta gehienbat atletismoan parte hartu zuten. Parte hartze hori lortzeko erresistentzia gogorrek gainditu behar izan zituzten eta horien artean Olimpiar Jokoen bultzatzaile handiena, Pierre de Coubertin (Oliveira, 2012)

Garapen honetan, emakumeak Olimpiar Jokoetan lekua hartzen joan dira eta 1992ko Bartzelonako jokuetan %25 izatetik eta 34 talde nazionaletan emakumerik ez egotetik, Londreseko Jokoetan % 45 izatera pasa da. Gainera, emakumeek diziplina olinpiko guztietan parte hartu dute eta parte hartzen duten 204 herrialdeek emakumeren batekin lehiatu dute beren taldeetan (Olivera, 2012).

Emakumeen gorputzaren ikuskera Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren eraginpean dago. Horrela, beti gizonezkoen menpekota edo zaintzaile gisa ikusia izan da: Lehenik,



ama eta seme alaben hartzaile, babestu behar den gizonaren konkistatzaile eta hezitzaile eta azkenik, ugaltzaile gisa (Rodríguez, Mateos eta Martínez 2004).

Rodríguez, Mateos eta Martínezek (2004)en ustez kirolaren bidez egiten den definizioak lanaren banaketa sexuala indartzen du eta egoera naturalizat hartzeko balio du. Emakumea gizarte kapitalistaren egitura patriarkalaren esklabo dela eta kirolak menpekotasuna errepikatzen eta justifikatzen laguntzen duela ondorioztatuz.

Izaera femeninoa eta emakumearen rol soziala ulertzeko modu tradizional hau XX.mendera arte mantendu zen Europan eta XIX.mendean taxututako ideia biologista edo irrazionalistak osatu zituzten. Diskurtso horrek, emakumea etxeko esparrura mugatzen du eta menpekotasun batzuk sortzen ditu: lehenik gurasoekiko eta ondoren senarrarekiko. Bizitza publikotik eta etxetik kanpoko lanetatik erabat aldenduz (Rodríguez, Mateos eta Martínez 2004).

## **2.2-Komunikabideen garrantzia**

Komunikabideak aisialdiaz gozatzeko tresna izateaz haratago, balio zehatzak zabaldu eta transmititzen dituzte. Ondorioz, gizarteratzeko bitarteko oso garrantzitsuak dira. Emakumeen kirola ikusarazteko orduan eragin handia dute bainaaskotan estereotipo sexista ugari erreproduzitzen dituzte (Beas, 2018)

Hainbat autorek publiko egin dituzte komunikabideek maiz jokabide matxistak proiektatzeko dituzten moduak. Askotan, kontakizun horiek kirol-arlotik erabat aldentzen diren edukiak aipatzen dituzte: Emakume kirolarien fisikoari, janzkerari edo familia-bizitzari buruzko aipamenak eginez besteak beste. Alderdi horiek ez dira berdintzen gizonezkoen kasuan eta badirudi ez datozela bat txapelketei buruzko informazioa eta emaitzak ezagutzera emateko kirol kazetaritzaren egin beharrarekin. (Rojas, 2010).

Gainera, Vizcarra, Lasarte eta Martínezek (2020) dioten moduan sarritan emakumezko kirolari bat albiste denean, bere itxura edo bere kirolaz kanpoko bizitzarengatik izan ohi da eta ez bere lorpenengatik. Horrelako argitalpenek sexismoa indartzen laguntzen dute. Horrela, nerabeek izango dituzten erreferenteak gizonezkoak izango dira soilik.

## 2.4-Kirol pratiken eremuak:

- **Eskolan:** Hezkuntza sisteman Gorputz Hezkuntza txertatu zenetik, emakumeek parte hartzeko aukera izan dute. Hala ere, Gorputz Hezkuntza oso bestelakoa izan da emakumezkoentzat edo gizonezkoentzat (Sánchez, Chiva-Bartoll eta Ruiz-Montero 2016).

PAFIC gidan, garai horietako estereotipo sexistekin, emakumeen Gorputz Hezkuntza “femeninoak” ziren kirol jardueratara bideratuta zegoela agertzen da, elastikotasunezko jardueratara gehienbat alegia. Gizartea eraldatzen joan den heinean, pixkanaka alde horiek murrizten joan dira, eta gaur egun eskola guztietako ikasle gehienek Gorputz Hezkuntzako irakasgaien neska-mutilentzako eduki eta metodologia berdinak izaten dituzte (Barbeiro, Navarro eta Rodríguez 2017).

Baina, hala ere, egiaztatu da Gorputz Hezkuntzak lege aldaketak gora behera, generoaren gizarte eraikuntza mantentzen eta betikotzen duela (Serra et al. 2019).

- **Aisialdian:** Emakumezkoen presentzia handiena duen kirol-eremua da zalantzarik gabe. Espainiako kirol-ohiturei buruzko datuek erakusten dutenez, 1980an kirol bat edo gehiago egiten zuten emakumeen datua %17koa zen, aldiz 2015.urtean ehuneko hori 42raino igo zen (Serra et al. 2019). Hortaz, emakumeen eta gizonezkoen arteko praktika ezberdintasuna badago, baina, gaur egun askoz ere emakume gehiago daude jarduera fisikoa egiten duela 35 urte baino.

Praktika motak eta kirola egiteko arrazoiak edo motibazioak ere interes eta gustu ezberdinak dituzte kirola aukeratzerakoan. Horrela, emakumeek kirola lehiaketa jarduerekin baino, aisialdiarekin, estetikarekin edo osasunarekin lotuago dauden praktiken bidez egin ohi dute. Kirol-sisteman emakumeak sartzeak kirola eta jarduera fisikoa egiteko eta ulertzeko beste modu batzuk sortzea ahalbidetu du askoz ere aukera anitzagoak eta dibertsifikatuagoak sortuz (Serra et al. 2019).

- **Federatuetan:** kirolaren esparru honetan dago alderik handiena emakumeen eta gizonezkoen artean. Lehiaketara bideratua dagoen kirola izanik, emakumeak ez dira oso erakargarriak izan historiari erreperatzen badiogu. Hala ere, mutilen parte hartzea ere oso baxua da. 2006.urtean, emakumeen parte hartzea %3, 2koa soilik zen eta gizonezkoena %13koa (Fernández eta López, 2012).

Hortaz, Espainian, federazio lizentzien %20 soilik dela emakumeena, hau da, emakume lizentzia baterako, gizonezkoen 4 daude (Leruite, Martos eta Zabala 2015). Urtez urte alde hori txikitzen ari da, baina lan handia dago oraindik ere aurretik.

Orokorrean emakumeen parte hartzea baxua da federatuetan. 10-19 urte bitartean daude federatu gehienak, ondoren 20 eta 29 urte bitartean eta 40 urtetik gorako emakumezkoetan oso datu baxuak dira kirola era federatuan egiten dutenak. 2006. urtean Emakumearen institutoaren azterketaren arabera, gehien praktikatutako kirolak futbola (%26,5), saskibaloia (%10,4), igeriketa (%8,8), eskia (%8,1) eta patinaia (%7,6) ziren (Fernandez, eta Lopez, 2012).

Federatu horietan, lehiaketen parte hartzean ere alde nabarmena dago emakumezko eta gizonezkoen artean. Gizonezkoen artean kirola egiten dutenen %25k lehiatzen du eta aldiz emakumeen %10ek (Serra et al. 2019).

## 2.5.-Eskolaren funtzioa

Urtez urte kirolaren erdigunean gizonezkoa ezarri izan da, emakumezkoa alde batera utziz eta sarritan, gizonezkoen menpeko laguntzaile izatera mugatuz. Horrela egoera sexista ezberdinak ematen dira sarritan kirol gehienetan, hala nola, motoetako azafatak edo podiumean sariak ematen dituzten emakumeak (Rodriguez, Mateos eta Martinez 2004). Egoera hauek, estereotipo ezberdinak sortzea ekartzen du emakumeengan eta hori aldatu beharreko zerbait da.

Gai honen inguruan irakasleok lanketa sakona egiteko aukera daukagu gizartean dauden egoera sexistak identifikatuz eta albo batera uzteko. Gorputz Hezkuntzako irakasleon zeregina da jarduera fisikoa eta osasuna bultzatu eta neska-mutilen aukera aniztasuna bermatu eta horren lanketa burutzea. Naberanek (2017) dio Hezkuntza praktikak instituzio sozialak direla, momentuko gizarte sistemarekin lotuta daudela. Gizarte bakoitzak, momentuko behar sozialak eta bere hezkuntza helburuak izango ditu

eta eskolak, familiekin, komunikazio sareekin eta informazio eta komunikazio teknologia berriekin batera, partekatzen ditu funtzio horiek.

Gaur egun, Gorputz Hezkuntzako irakasleak gero eta gehiago arduratzen dira norbanako bakoitzaren ezaugarri eta aukera pertsonalak garatzea ahalbidetzen duen programa eskaintzeaz. Baina, oraindik ere, mutilak maskulinitasunari dagokion lorpenengatik epaituak izaten dira eta emakumeak maskulinitasun horren aurrean epaituak izaten diren errealitatean bizi gara (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2006).

Horretarako, sarritan bizi izan ditugun hainbat egoera aldatu eta zer pentsatua emango diguten hainbat egoera aldatzeko baliatu behar dugu. Ohituraz, ezagunak ditugun kirolari gehienak gizonezkoak direla argi dago. Horrela, egoera horri buelta eman eta emakumezkoak ere txertatzen hasi behar gara kirolari horien artean eta bakoitzak lortu duena balioan jarri, dela emakumezkoa ala gizonezkoa.

Sánchez, Chiva-Bartoll eta Ruiz-Montero (2016) ustez, eskola, funtsezko hezkuntza erakundea da emakume eta gizonezkoek eskuratzen dituzten jokabideak eratzeko prozesuan. Gaur egun, eskolako curriculumean ez dago alderik neska eta mutilen artean. Baina, oraindik ere, curriculum ezkutuan mutila erdigunean jartzen da, neskek bereizkeria jasaten dutelarik. Guztien eskola, mutilen eskola izan da (Uribarri, 2020) eta horregatik, beharrezkoa da, eskolak kontzientzia hartzea identitate sexuala eraikitzeko prozesuan betetzen duen funtzioan eta bi generoen balioespen soziala transmititzekoduen garrantzian (Guerra et al. 2000).

Guerra, Arenas eta Blancoren ustez, jokabide desegoki horiek transmititzeko gizonezkoek eta emakumezkoek esleitutako prozesuak hain dira konplexuak askotan ez garela jakitun ere izaten. Prozesu honetan, hainbat agentek hartzen dute parte, jokabide horiek, familian hasten dira, eskolak osatu eta legitimatu egiten ditu eta komunikabideek indartzen dutelarik.

## **2.6.-Axular Lizeoan Covid dela eta GHan hartu diren neurriak**

2020ko Martxoan Covid 19aren pandemia zabaltzen ari zela ikusita, eskola guztiak itxi eta haurrak etxean sartu behar izan ziren. Hasieran, Gasteizeko eskolak bakarrik itxi ziren, Martxoaren 10ean. Baina, Martxoaren 12an eskola guztiak itxeko erabakia hartu

zen. Zenbat denbora luzatuko zen ez zen zihurra eta hasieran, bi asterako zen itxialdia, azkenean ikasturte amaierararte luzatu zen.

Hori horrela haurren ikasketa prozesua baldintzatua izan zen eta horri aurre egiteko telebistan ere “Bitartean etxetik ikasten” bezalako programak egin zituzten ETB3n (Berasategi et al., 2020). Gorputz Hezkuntzan kalte horiek oraindik ere nabariagoak izan ziren, azken finean, haurrek kirola jolasen bidez egiten dute eta aukera hori mugatua izan zen. Etxean egonda kirola egiteko aukera gutxi izan zuten eta eskolako planifikazio hori gabe geratzean bitarteko gutxiago izan zituzten jarduera fisikoa egiteko (Andreu, 2020).

Covid 19<sup>a</sup> dela eta eskola guztiek arauak aldatu dituzte. Adibidez, Axular Lizeoan hartutako neurriak ondorengoak izan dira: Goizero temperatura hartzen zaie haur eta irakasle guztiei ikastetxeko sarreran eta gel hidro alkoholikoa bota behar izaten dute gelara sartu aurretik, gela bakoitza burbuia bat da eta ez dira beste gelako ez eta beste mailakoekin gurutzatzen, jolas orduetan, gela bakoitzak bere eremua izango du eta talde bakoitza eremu horretara mugatua egongo da...

Guri dagokigunez, Gorputz Hezkuntzako saioetan ondorengo neurriak hartu dira: materiala hasieran ezin zen erabili, materiala erabiltzen hasi zenean desinfektatu Behar zen, saioak ere mugatu egin dirá lehen 60 minutukoak izatetik 45 minutu izatera pasata, gela bakoitzak saio bakoitzerako eremu zehatz bat izango du...

Arau hauek, erabat mugatu dute Gorputz Hezkuntzaren jarduna. Materiala eta eremuaren mugek haurren jarduera fisikoa mugatu eta baldintzatzen dute. Irakaslearentzat erronka berri bat ere izan da, helburuak lortzeko, denbora, bitarteko eta material gutxiago izan dutelako.

Honek guztiak haurren jarduera fisikoan eragina izan du. Jarduera fisikoa egiten jarraitu dute orokorrean, baina, ezin izan dute lehen egiten zuten maiztasun berdinarekin egin eta gainera, jarduera fisikoa egiteko une horiek sarritan pantaila bitarteko jolas edo jarduera ezberdinetara bideratu dituzte.

### **3.- Helburua:**

Egindako galdeketekin helburu ezberdinak lortu nahi ditut. Batetik, azken urte luzetan eskola kirolean eta Gorputz Hezkuntzako ikasgaien generoarekiko egon diren aldaketa ezberdinen analisia egitea.

Bestetik, Gorputz Hezkuntza ikasgaiak orain bizi duen egoeraren inguruko analisia egin eta etorkizunaren inguruko gakoak identifikatzea. Honekin jarraituz, Covid 19ak izan duen eraginaren inguruko analisia burutzea.

Azken helburuarekin eskola kirolaren analisia egingo dut. Zehazki, azken 3 urtetako datuen bilakaera aztertzea. Datuak generoaren arabera banatuak daudenez, neska eta mutilen parte hartzea eskola kirolean aztertzea izango da xedea.

### **4.- Metodoa**

Marko teorikoarekin amaitu ostean, jarraian, lan hau aurrera eramateko garatu den prozesuaren berri ematen da, metodoaren deskribapen zehatza eginez.

#### **4.1- Prozedura**

Metodoari dagokionez lana burutzeko ondorengo prozedura jarraitu dut. Gorputz Hezkuntzako bi irakasleekin galdeketa burutuz. Nire praktikaldia Axular Lizeoan egin nuela probestuz, bertako bi irakasle elkarrizketatu nituen. Bertan ikasi nuenez, biak aldeztatik ezagutzen nituen. Grabaketa horiek, aurrez aurre egin genituen Apirilaren 21 eta 23an. Bi irakasle horietako bat eskola kiroleko arduraduna da eta ikastetxeko eskola kiroleko datuak nirekin partekatu zituen.

##### ***4.1.1.-Informazioa biltzeko tresna:***

Informazioa biltzeko tresna, galdetegi bat izan da. Irakasleei egindako galdeketa 5 azpi ataletan sailkatu da. Genero perspektiba eta kirola, generoa gelan, generoa eskola kirolean, covid 19aren eragina eta etorkizunera begirada. Azpi atal bakoitzak galdera ezberdinak izango ditu. Ondoren erantzun horietatik abiatuta analisia eta etorkizunera begirada bat jartzea, hobetu behar eta gako ezberdinak identifikatuta izango da.

#### **4.1.2.-Parte hartzaileak:**

Galdera horiek bi irakasle ezberdinei egin zaizkie. 30 urte baino gehiago doazenak Axular Lizeoa Donostiako Ikastolan. Bata Gorputz Hezkuntzako irakaslea izateaz gain lehen eta bigarren mailatan tutorea ere bada azken 30 urteotan. Beste irakaslea aldiz, Gorputz Hezkuntzako irakaslea izateaz gain lehen hezkuntzan, DBH eta batxilergoan ere bada eta eskola bereko kirol koordinatzailea ere bada.

#### **4.2.-Analisia nola egin da?**

Analisia egiteko, galderak 5 multzo ezberdinetan banatu dira. Genero perspektiba eta kirola, generoa Gorputz Hezkuntzan, generoa eskola kirolean, Covid 19aren eragina eta etorkizunera begirada. Erantzunak azpi atal horietan sailkatu dira eta ordenatuak izan dira ondoren erabiliko zen sekuentzia berdinarekin, horrela, erantzunak sailkatuta zeudela aipu garrantzitsuenak hartzea izan da hurrengo pausua, hau da, informazio guzti horretatik interesgarriena izan zitekena hartu eta ondoren hori analisiaren atalera pasatzea.

#### **4.3.-Konpromiso etikoa**

Elkarrizketatuei azaldu zaie nire lanaren nondik norakoak, galdeketaren helburua zein den, lana burutzeko analisiaren atalerako tresna garrantzitsua izango dela eta erantzunak era anonimo eta konfidentzian gordeko ditudala zin egiten dut. Irakasle hauen izen abizenak ez dira inon argitaratuak izango eta beraien informazio ez da inondik inora ere zabalduko.

#### **4.4.-Lanaren Kronograma**

<b>Eguna</b>	<b>Zeregina</b>
2021-02-16	Marko teorikoa entrega
2021-03-23	Galdetegia entrega
2021-04-21/23	Galdeketa egin
2021-05-11	Emaitzak entrega
2021-05-19	Zirriborroa entrega
2021-06-09	Azken entrega

## **5- Emaitzak**

Emaitzen atal honetan, galdetegian 5 gai ezberdinen inguruko galderak burutu dira, atal horiek genero perspektiba eta kirola, eskola kirola, gorputz hezkuntza, covid-aren eragina eta etorkizuna izango dira.

### **5.1- Genero perspektiba eta kirola**

Proposaturiko lehen galderak kirola eta berdintasunaren ingurukoak dira. Emaitzetan berdintasuna ez egotearen zergatiak aztertuko dira, dirua eta erreferente falta izanik gehien aipatuak.

Azken urteotan emakumeen presentzia kirolean asko hazi dela argi dago “Geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da emakumeen kirola baina, oraindik ere oso urruti gaudela berdintasunetik argi ikusten da” (Irakasle 1). Aldaketa horren sustatzailea emakumea izan da. Izan ere, azken urteetan euren bizi eredia asko aldatu da, irakasle 2k dio “Gurasoak kirolik ez egitetik kirola egitera igaro dira, ongi jateko ohiturak hartzen ari dira... eta guzti hori haurrei transmititzen ari dira”.

Hori gerta dadin, azken urteetan aldaketa nabarmena eman da. Emakumeek askoz ere aukera aniztasun handiagoa dute gaur egun kirola egiteko.

### **5.2- Generoa Gorputz Hezkuntzan**

Ondorengo azpi atala, generoa Gorputz Hezkuntzako saioetan da. Helburuak, lan egiteko modua eta ikusten dituzten berezitasunen inguruan galdetu zaie irakasleei. Hasteko, berdintasuna txikitatik landu beharrezko gaitzat hartzen dute. “Berdintasunak eskolatik hasi behar du. Gorputz hezkuntzatik abiatuta, azkenean eskola kirola 3.mailan hasten da eta horren aurretik lanketa handia dago egiteko” (Irakasle 2).

Bestetik, Gorputz Hezkuntzako saioen inguruan, beste edozein ekintza edo gaietan bezala berdintasuna landu behar dela argi dute. Irakasle 1ek dio “Ez nuke onartuko Gorputz hezkuntzako klase bat berdintasunik gabe, hori ezinezkoa da. Ikasi behar dugu denak integratzen, eskubide berdinak dituztela mutilak eta neskek eta hori potentziatu behar dugu”

Azken urteetan nesken motibazio mailan aldaketa ikusi dutela gaineratzen dute. “Duela urte batzuk, 12 neska motibatu behar zenituen gela bakoitzean, jolasten ari ginen



eta askotan ilearekin jolasten egoten ziren adibidez” (Irakasle 2). Horrela, hobekuntza izugarria ikusi dute eta saioak askoz ere eraginkorragoak direla aipatzen dute, neska-mutilen parte hartzea askoz ere homogeneoagoa bihurtu delarik.

Aldaketa gertatzearen faktore nagusia, gurasoen aldaketan kokatzen dute. Emakumeen gehiengoak gaur egun kirola bere bizimoduaren erdigunean jartzen du. Jarduera fisikoa egiteari garrantzia ematen diote eta bizitza aktibo hau seme-alabei transmititzen diete. Honen harira, Gorputz Hezkuntza ikasgai garrantzitsua bihurtu da. “Prozesu bat izan da, Gorputz Hezkuntzak garrantzia hartu du ikasgai bezala, garrantzia eman zaio eskolatik eta gizarteak ere eskatzen duelako, ikasgai garrantzitsu bat bezala ikusten da, lehen ez bezala” (Irakasle 1). Aldaketa nabarmena programazioan eman da. Garai batean jarduera indibidualistagoa zen eta egun, jarduera sozial eta taldekoagoa da. Prozesu honetan taldeko jolasek berebiziko garrantzia hartu dute, haurren motibazio eta grina indartu dela diote irakasleek. Honekin batera, jolasen bidezko programazioak haurren parte hartzea indartzen duela eta ezberdintasunak alde batera uzten direla aipatzen dute.

Hala ere, ebaluazioan neska-mutilen artean ezberdintasunak nabari dituztela diote. Mutilen orokorrean nota hobeak ateratzen dituzte. Hala ere, gelatan dagoen mutil kopuru handiak eragina izan dezake. Ondorengo taulatan argiago ikusiko dugu (taula 1, taula 3 eta taula 5)

Ebaluazioarekin jarraituz, irakasle 1ek Gorputz Hezkuntzako ebaluatzeke moduari kritika egiten dio “34 urte Gorputz hezkuntzako klaseak ematen eta oraindik ez nago pozik ebaluatzeke sistemarekin. Hasteko, ebaluazio testak egingo bagenu, ez da baloratzen gurekin eginiko lana, test horiek egitea ez dut erabat gaizki ikusten, baina, ez notarako, horiekin beste lanketa bat egiteko baizik. Orduan ebaluatzea oso ososubjetiboa bihurtzen da. Nik baloratzen dudana da lehenengo motibazioa, asistentzia klasera eta jarrerak batez ere. Bikainak jartzeko orduan, mutil gehiagok ateratzen dute neskak baino, eta nahiko gehiago neskak mutilak baino. Eskakizun maila ere zaila egiten zait berdina jartzea horregatik saiatzen naiz mixtoak izan daitezkeen kirolak egiten (Irakasle 1).

LH, DBH eta batxilergoko ikasleen artean badira alde nabarmenak. Nerabezaroan beste gauza batzuetan izan ohi dute burua eta Gorputz Hezkuntzako irakasleak jarduera ezberdinak bilatu behar dituzte euren motibazioa lortzeko. “Nire

helburua, kirola etorkizunari begira zein garrantzitsua den ikustea da, eskolatik irteteen kirola egiten jarraitzea” (Irakasle 1). Irakasle 1k ere aipatzen du “Hemen etorri eta segituan laguntzen dute materiala prestatzen ez zaie ia ezer esan behar, ez da euren atzetik ibili behar, denek egiten dute egin beharrekoa. Agian ni hemengoarekin burbuia batean bizi naiz. Ez dakit zer dagoen hor kanpoan, baina hemen nik hori bizitzen dut”.

Laburtzeko bi irakasleak bat datoz genero berdintasunarekiko aurrera pausu nabarmenak ematen ari direla. Hala ere, azpimarratzen dute beraien esperientziatik hitz egiten dutela beste eskolatan zer egiten duten jakin gabe. Ekintzei dagokionez, aniztasun handiagoa nabaritzen dute. Aldiz, ebaluatzerako orduan oraindik ere hutsuneak ikusten dituzte, sarritan gizonezkoen ezaugarriak saritzen direla diote.

### **5.3- Generoa eskola kirolean**

Aukera berdintasuna sustatzeko eskolatik apustua egiten ari da, “ez da kuotarik kobratzen federatu arte. Horrela, dohainik izanda partaidetza oso handia da eta ez dugu horregatik inor albo batera geratzea nahi, ez dakit horregatik izan den ia neska guztiek parte hartzen dutela baina hasiera bat izan dela oso garbi daukat” (Irakasle 1).

Gorputz Hezkuntzako ikasgaia alde batera utzita, hurrengo lerroetan eskola kirolean murgilduko gara. Lehenik, eskola kirola bera ezberdin ulertu eta bizitzen dutela aipatu dute irakasleek. Neskek ekintza sozialtzat ikusten dute, taldekidetasuna sustatzeko tresna gisa. Mutilek aldiz, gehienbat lehiakortasuna bilatzen dute “motibazioak ezberdinak direla kontuan hartuta jakin behar dugu hezten batak eta besteak” (Irakasle 1).

Orokorrean, jokoan ezberdintasunak sortzen dira neska-mutilen artean. Mutilak bortitzagoak izan ohi dira, berekoiagoak baloiak pasatzerako orduan etab. Neskek aldiz, jolasteko modu hori ez dute oso atsegin izaten eta eskola kirola uzteko hautua egin ohi dute. Irakasleek aipatu dute talde mixtoak izan direnetan nesken parte hartzea oso baxua izan dela. Euren ustez, eskolak ezin du horrelakorik onartu eta banatzeko hautua egin da. Irakasle 1ek dio “Guk banatu egiten ditugu eta horrela lortu dugu bai neska eta bai mutilen ehunekoak oso altuak izatea. Zalantzarik gabe neska horietako asko gai izango ziren mutilekin jolasteko, baina nahiago izaten dute neskekin jolastu, sarritan neska horiek errendimendu taldeetan egoten direlako eta lehiakortasunaren arlo hori eskolatik kanpo betetzen dutelako”.

Duela urte batzuk, nesken parte hartzea oso baxua izaten zela aipatu dute. Mailak edo taldeak elkartu egin behar izaten ziren nesken taldeak osatzeko. Pixkanaka aurrera pausuak eman dira gai honen inguruan eta gaur egun, beraien ustez eskola adinean ez dago hainbesteko alderik neska eta mutilen parte hartzeari dagokionez ondorengo grafikoetan ikusiko dugun bezala (grafiko 1, grafiko 2 eta grafiko 3).

Aurreko paragrafoan aipatutako aldaketaren faktoreak aztertuz, gurasoen pentsaera asko aldatu dela aipatu dute. Irakasle 1ek dio “Lehen gurasoak emaitzak nahi izaten zituzten eta haurrak gehiegi presionatzeko joera izaten zuten. Gaur egunean eskola kirolean behintzat ez da hainbeste gertatzen, guraso gehienak disfrutatzen doaz eta umeak hartzen dute protagonismoa eta eurak daude erdigunean, gurasoak animatzen doaz eta ongi pasatzen eta ez diete protagonismoa haurrei kentzen”.

Axular Lizeoan, eskola kirola egiteko banatu egiten dituzte neska-mutilak. Irakasle 1ek futbola adibide gisa hartuta, mutilek jolas ordu guztiak futbolera jolasten igarotzen badituzte, trebetasun handiagoak eskuratuko dituzte eta aldeak nabarmenagoak bihurtzen direla. Hauek, bere ustez entrenamenduetan isla izaten dute “Bai mutilen eta nesken artean sortzen ari zaizkigu alde ikaragarriak batzuk ez dutelako jolastu nahi eta beste batzuk bai, horrela, arazoak entrenamenduetan tira-birak, hitz txarrak... horri lehenetsuna eman behar diogu ez hainbeste aspektu teknikoak eta abar, garrantzitsuena azkenean jarrerazkoak dira, eta ni hori ikusten ari naiz”.

Dena dela, irakasle 2k alderantzizko kasuak ere gertatzen direla aipatzen du “Hala ere, badira kasu bereziak ere, mutil batek egunerokoa neskekin egiten duen eta eskola kirolak banatu egiten dituen, mutilekin ez duela apuntatu nahi eta ez dela apuntatu. Eta pena bat da, horrelako kasuak ematen dira. Mixtoak egoteko aukerarik ez dago eta agian egon beharko lukete, herri eskoletan adibidez mixtoak izaten dira. Alderantziz ere gertatu da, neska bat oso gustuko duena futbola eta beti mutilekin ibiltzen zena, orduan eskola kirolean neskek ez badute egin nahi neska batzuek ez dute nahi eta mutilen taldean ezin da sartu, horrelakoetan agian mixtoa egoteko aukera egon beharko luke”.

Azkenik, Axular Lizeoan 2018, 2019 eta 2020ko eskola kiroleko datuekin, taula eta grafiko ezberdinak sortu eta aztertuko ditut. Bertan, urte bakoitzean LH3tik-LH6ra dauden ume kopurua ageri da eta horietatik zenbatek parte hartzen duten eskola kirolean. Analisi egokia egiteko neskek eta mutilen kopuruak banatuta agertzen dira.

1. taula: Matrikulatutako ikasle kopurua eta parte hartzaileak eskola kirolean (2018)

L.H 3		L.H 4		L.H 5		L.H 6	
Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
22	30	19	37	25	29	24	27
19	29	15	37	25	29	24	27
%86,4	%96,7	%78,9	%100	%100	%100	%100	%100

Nik osatutako taula

1.taula honetan, Axular Lizeoa ikastolako 2018.urteko matrikulatutako ikasle kopuruaren datuak ikusten ditugu, eskola kiroleko adinean, hau da, 3.mailatik 6.mailara eta adin tarte bakoitzean matrikulatu diren neskak eta mutilak. Matrikulatutako ikasle horietatik zenbatek egiten duten eskola kirola azaltzen da, ondoren azaltzen diren ehuneko horiek matrikulatuta dauden ikasle horietatik eskola kirola egiten dutenen ehunekoa da hain zuzen ere. Nabarmentzekoa, neska eta mutilen parte hartzea oso altua dela eta nahiko orekatua dagoela da. Alde nabarmenena, L.H 4. mailan egonik.

2. taula: Parte hartze totalak sexuka (2018)

NESKAK	MUTILAK
83	122
%92,2	%99,2

Nik osatutako taula2. taula honetan, zenbat neska eta zenbat diren eskola kirolean parte hartzaileak agertzen da. Eta ondoren, nesken eta mutilen artean guztietatik zenbatek egiten duten eskola kirola ehunekotan.

Mutilen ehunekoa oso altua da, adin horietako mutil bakarrak ez du eta eskola kirola egiten, nesken ehunekoa ere oso altua da, izan ere, 10 nesketatik, 9ik baino gehiagok egiten dute eta eskola kirola.

3.taula:Matrikulatutako ikasle kopurua eta parte hartzaile kopurua eskola kirolean (2019)

L.H 3	L.H 4	L.H 5	L.H 6
-------	-------	-------	-------

Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
23	31	24	29	19	37	25	29
19	28	19	29	17	34	25	29
%82,6	%90,3	%79,2	%100	%89,5	%91,9	%100	%100

Nik osatutako taula

3.taula honetan, Axular Lizeoa ikastolako 2019.urteko matrikulatutako ikasle kopuruaren datuak ikusten ditugu, eskola kiroleko adinean, hau da, 3.mailatik 6.mailara eta adin tarte bakoitzean matrikulatu diren neskak eta mutilak. Matrikulatutako ikasle horietatik zenbatek egiten duten eskola kirola azaltzen da, ondoren azaltzen diren ehuneko horiek matrikulatuta dauden ikasle horietatik eskola kirola egiten dutenen ehunekoa da hain zuzen ere.

Urte honetan ere, neska mutilen parte hartzeak oso altuak dira, berriro ere alde nabarmenena 4.mailan egonik. Hala ere, berriro ere parte hartzea mutilena neskena baino altuagoa izan da, 4.taulan ikusiko den bezala.

4.taula: Parte hartze totalak sexuka (2019)

NESKAK	MUTILAK
80	120
%87,9	%95,2

Nik osatutako taula

4. taula honetan, zenbat neska eta zenbat diren eskola kirolean parte hartzaileak agertzen da. Eta ondoren, nesken eta mutilen artean guztietatik zenbatek egiten duten eskola kirola ehunekotan. Ikus dezakegu, mutiletatik ia %8k gehiago egiten dutela eskola kirola.

5.taula: Matrikulatutako ikasle kopurua eta parte hartzaile kopurua eskola kirolean (2020-2021)

L.H 3		L.H 4		L.H 5		L.H 6	
Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak

21	31	22	31	24	29	19	35
18	30	19	30	23	29	19	33
%85,7	%96,8	%86,4	%96,8	%95,8	%100	%100	%94,3

Nik osatutako taula

5.taula honetan, Axular Lizeoa ikastolako 2020.urteko matrikulatutako ikasle kopuruaren datuak ikusten ditugu, eskola kiroleko adinean, hau da, 3.mailatik 6.mailara eta adin tarte bakoitzean matrikulatu diren neskak eta mutilak. Matrikulatutako ikasle horietatik zenbatek egiten duten eskola kirola azaltzen da, ondoren azaltzen diren ehuneko horiek matrikulatuta dauden ikasle horietatik eskola kirola egiten dutenen ehunekoa da hain zuzen ere.

Datu hauetan, alderik nabarmenena L.H 3 eta 4. mailatan dago, eta 6.mailan nesken ehunekoa altuagoa da mutilena baino, ikusi ditugun datuetan lehenengo aldiz.


6.taula: Parte hartze totalak sexuka (2020-2021)

NESKAK	MUTILAK
79	122
%91,9	%96,8

Nik osatutako taula

6. taula honetan, zenbat neska eta zenbat diren eskola kirolean parte hartzaileak agertzen da. Eta ondoren, nesken eta mutilen artean guztietatik zenbatek egiten duten eskola kirola ehunekotan. Datu hauetan, mutilen ehunekoa, 5 puntu gehiagokoa da soilik emakumezkoenarekin alderatuta.

1.grafikoa: 2018,2019 eta 2020 urteetan eskola kirola egiten duten mutil eta nesken kopurua




Nik osatutako taula

1. Grafiko honetan ikusten dugu, neska eta mutilen kopuruetan alde nabarmena dagoela hiru urtetan. Kopuruetan alde nabarmena dago, urtero 40 ikasle inguruko diferentzia hain zuzen ere.

2.grafikoa

3.grafikoa



Nik osatutako taula

Nik osatutako taula

Axular Lizeoan eskola kirolean, mutilen eta nesken parte hartzea oso handia da. Guztira, LH3-LH6 bitarteko adin tarte horretan, ikasleen %92,2k egiten du eskola kirola, mutilen artean %95,2 eta nesken artean %87,9 izanik. Guztira, parte hartzen duten kopuruan alde nabarmena dago, 120 mutilak eta 80 neskak baina, gehienbat, matrikulatutako ikasle kopuruarekin lotuta dago, 91 dira matrikulatuta dauden neskak eta aldiz, mutilak 126.

2. grafikoa eta 3.grafikoaren alderaketa eginda, nabarmena da eskola kirolean parte hartzea handiagoa dela mutilena neskena baino. Hala ere, datu hauen analisia eginda parte hartzea oso handia da bai mutilena (% 95,2) eta baita neskena (%87,9) ere.

Puntu honen laburpena egiteko datuetan oinarrituko naiz. Horietan, mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa dela ikusten da. Azken urtetako tendentziekin bat eginez, nesken parte hartzea oso handia dela ere argi dago. Hala ere, azken bi urtetan neska eta mutilen parte hartzea zertxobait jaitsi da. Honen arrazoiak, askotarikoak izan daitezke eta ez da erraza identifikatzen. Gainera, irakasleek ere horren ehuneko txikia izanik ez diote garrantzia handiegirik eman. Hala ere, datuek argi erakusten dute ikasleen gehiengoak eskola kirola egiten duela.

#### **5.4- Covid-19aren eragina**

Jarraian Covid-ak izan duen eragina aztertuko dut. Haurrak 2020.urteko Martxoaren 16tik ikasturte amaiera arte eskolara joan gabe egon ziren. 3 hilabete horietan etxetik lan egin behar izan zuten. Epe horretan Gorputz Hezkuntzako ikasgaia nola landu zuten galdetu diet. “Lehen Hezkuntzako hurrekin erronka batzuk egitea pentsatu genuen, galtzerdiekin kanastara jaurtitzea, paper-bilkariarekin airean tokeak egitea, txapekin zirkuituak...erronka bidez lan egin zuten” (Irakasle 2).

Bestetik, DBH eta batxilergoko ikasleekin musikarekin gorputz guztia lantzeko ariketak prestatu zituztela aipatzen du irakasle 1ek. Azkenean, egun osoa pantaila aurrean pasatzen zuten eta beharrezkoa zutela horrelako zerbait egitea gaineratzen du.

Irakasle 1ek ondorengoa dio “Ez genuen kontrolik ezartzen saioak burutzen zituzten edo ez, beraien esku uzten genuen saioak gauzatzeko aukera, egoera berezi honen aurrean horrela egitea pentsatu genuen” . Aurten berriro ere, “normaltasunera” itzuli dira eskolak eta orokorrean ez dutela saioak ematerako orduan, jarrera aldetik aldaketa nabarmenik antzeman aipatu dute.“Ez nuke esango jarreratan nabaritzen denik Covidaren eragina” (Irakasle 2).

Hala ere, Covidaren ondorioz ezarri diren arau ezberdinak Gorputz Hezkuntza erabat aldatu dute eta ondorengoak dira ikusi dituzten aldaketa nabarmenenak. Hasteko, musukoaren erabilpenak Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren sekulako kaltea egin duela aipatu



dute. “Lasterka egiteko arazoa den aldetik, egoerara ohitu behar izan gara eta jarduerak aldatu egin behar izan ditugu, horrela erresistentzia jarduerak orientaziozkoengatik aldatu ditugu adibidez”(Irakasle 1).

Beste aldaketa nabarmenena, espazioen muga izan da. Espazioen banaketak ziklo edo mailaka egin ohi ziren, baina, orain burbuiak mantentzeko gela bakoitzak espazio bat egokia izaten du egun bakoitzerako, horrela, saioak programatzeko orduan, muga handia izaten da, espazioaren arabera egokitu behar izaten dutelako. “Saioak antolatzeke orduan gela bakoitzak eremu bat izaten du eta saioa izango den eremura egokitu egin behar izaten dugu” (Irakasle 2).

Hauetaz gain ere saioak murriztuak izan dira 45 minutukoak izanik saioak, lehen 60 minutukoak zirenean “Orduan 15 minutu baloiak garbitzen pasatzen baduzu, saioa joaten zaizu eta ez duzu ezta 20 minutuko Gorputz Hezkuntza egiten” (Irakasle 2). Bestalde, ikasturtearen hasieran, baloi, pilota eta material ezberdinen erabilera debekatua zegoen, baina, orain materiala erabiltzen dutela esan dute ondoren desinfektatzen. “Arauk aldatzen joan diren heinean, Gorputz Hezkuntza ikasgaiarentzat onuragarriak izan direla esan dezaket” (Irakasle 1).

Gorputz Hezkuntzako saioetan aldaketa nabarmenik ez dute ikusi haurren artean, aldiz adin handiagoko neska-mutilen artean eragina nabaria izan dela aipatu dute batez ere, federatuetan nabaritu dutela, “federazioak lagun arteko partiduak antolatu ditu eta nesken taldeen parte hartzea nahiko baxua izan da eta ez dakigu zergatik izan den. Nesken futbol taldea ere bertan behera geratu da eta beste leku askotan ere berdina pasa da, aldiz, mutilen taldeekin ez da hori gertatu” (Irakasle 1).

Bere ustez, mutilak partidu edo kiroletera apuntatzea errazagoa izaten da eta agian egoera berezi honek ere bultzatuta jarduera fisikoa albo batera uztea eragin du, gehienbat adin batetik aurrerako nerabeetan. Bestetik, instalakuntzaren arazo nabarmena ere oztopo izan dela dio, “Instalakuntza falta ere izan daiteke, saskibaloia zelaia Axularren badugu, baina, futbol zelaiak mugatuak dira Donostian eta gure entrenatzeko ordua 9:30etan zen, eta etxeratze aginduarekin ezin izan dira gauzatu” (Irakasle 1).

Laburbilduz, Covidak baldintzaturiko egoera honetan, bi irakasleak bat datoz ikasle bakoitzari erronka ezberdinak jartzea garrantzitsua dela. Saioak baldintzatuak izan dira, bereziki, espazioak, denbora eta materiala izanik aipatzen dituzten elementu

nagusienak. Dena dela, irakasleen zeregina da egoera berrietara egokitzea. Zentzu horretan, neurriak malgutzen joan diren heinean, Gorputz Hezkuntza eta eskola kirolak onurak izan dituzte.

### **5.5- Etorkizunari begirada**

Hasteko eskola kirolean ondorengo urteotan aldaketa batzuk emango direla dirudi, horren inguruan: “Foru aldunditik tendentzia ezberdin batzuk datoz. LH 3-4 mailatan alde batera uztea futbola, eskubaloia, saskibaloia... horrelako talde kirolak eta beste ekintza mota bat bultzatzea. Gorputz hezkuntzarekin zer ikusia handia izan dezakeena, trebetasunak, koordinazioa adibidez lantzeko, proiektua oraindik egin gabe dago. Gorputz Hezkuntzako astean 3 eta 4garren saio bat izango balitz bezala. Ondoren 5garren mailan hasiko lirateke talde kirolak zehazki lantzen” (Irakasle 1).

Eskola kirolaren proiektu hori aipatuta, etorkizunera begira jarri behar gara eta bertan bi atal ezberdin bereizi behar dira. Alde batetik, eskola kirola edo lehiaketa eta beste aldetik Gorputz Hezkuntza ikasgai moduan. Eskola kirolean neska eta mutilak bereiztearen aldeko apustua egiten du eta Gorputz Hezkuntzan denak elkarrekin eta ahalik eta integratzaileena egiteko. “Lehiaketa dagoen bitartean mutil eta neskek banatu egin behar dira, batera aritzen badira neskek kaltetuak ateratzen dira gehienetan, kasuren batean izan ezik ” (Irakasle 1).

Bere iritziz, egoera diskriminatzailearik ez da normalean ikastetxetan ematen eta egoera horiek ematen direnean, etxetik edo kanpotik ekarritako jarrera batzuen ondorio dela uste du. “Ez dut uste diskriminazio egoerarik ematen bada eskolan jasotzen dutenagatik dela inondik ere” (Irakasle 1).

Emakumezkoentzat bidea irekitzen ari da, neskek badituzte ereduak eta aldaketa bat ikusten da. Hala ere, lanketa handia dago egiteko, gizarte mailan, kirol gehiagotan atak ireki beharko dira eta horren arazoa, diruaren kudeaketa ere bada. “nire iritziz, eskolan egiten da berdintasunaren alde” (Irakasle 2).

Epe laburrera eta luzera begira jarrita, irakasle 2k uste du ikastetxe mixtoetan berdintasuna eskaintzen dela, azken urteotan aurrera pausu nabarmenak eman direla eta bide onetik goazela, baina, erabateko berdintasuna gauzatzeko oraindik ere lan handia

dagoela egiteko eta urte asko igaroko direla berdintasun hori lortzeko. Haurren aldetik hala ere, jarrera ezberdinak izaten dituztela uste du ikasgelan eta eskolatik kanpo.

Gehitzeko, mutilak ohartzen ez garen hainbat egoera edo jarrera sexistak ere izan daitezkeela ondorioztatzen du eta emakumezkoen ikuspuntua ikusi arte sarritan ez garela ohartzen jarrera horien kalteaz ere aipatzen du. “Gorputz hezkuntzako ikasgaien berdintasuna ematen dela nahiko argi daukat, aukera berdintasuna izaten da eta aukera anitzak eta berdinak izaten dituzte, jarduera fisikoa egiteko berdintasun osoa dute” (Irakasle 1)

Laburtzeko, bi irakasleak baikorrak dira etorkizunari begira. Eskolan berdintasuna pixkanaka hezkuntza praktikaren erdigunea hartzen ari dela aipatzen dute eta bide horretan sakontzen jarraitu behar dela uste dute. Horretarako proiektu zehatzak oso baliagarriak dira eta genero berdintasuna bermatzeko proiektu horietan txertatuta egongo diren jarduera anitzak egitea beharrezkoa dela diote.

## **6.- Ondorioak**

Ukaezina da azken urteetan gizartean aldaketa handiak ematen ari direla. Hauek, hezkuntzan ere isla izaten ari dira. Horrela, irakasleon egin beharra edo zeregina ere egokitzen ari da. Edukien transmisore izatetik haratago, haurrekin balio inklusiboak lantzeak berebiziko garrantzia hartu du.

Balio nagusi horietako bat, genero berdintasuna da. Historikoki gizonezkoen eta emakumezkoen bereizketan oinarritu denez gizartea, hau eraldatzea prozesu luze bat izango da. Dena dela, emaitzak ikusten ari gara, besteak beste, emakume erreferenteak agertzen ari direla, emakumezkoek geroz eta kirol gehiago egiten dutela, Gorputz Hezkuntzan geroz eta jarduera fisiko anitzagoak egiten direla edo nesken parte hartzea eskola kirolean asko hazi dela.

Eraldaketa hau ezin da soilik irakasleen esku geratu. Eskolak, planifikatu beharko du genero berdintasuna nola bermatu ikastetxean. Eskola kiroleko arduraduna eta Gorputz Hezkuntzako irakaslearen zeregina izango da bere saioetan planifikatutakoa aurrera eramatea. Dena dela, garrantzitsua da beste irakasleekin elkar lanean egitea

prozesua. Esaterako, koordinazio bileratan gai hau presente egotea eta irakasleen artean ikuspuntuak partekatzea (Macazaga, Recalde eta Vizcarra 2006).

Elkarlan hau ez da soilik eskolara mugatua izango. Interesgarria da, eskolak lotura izatea herri edo auzo ezberdinetako eragileekin. Bereziki, aisialdi taldeak, kirol taldeak etab. Horrek eskola kirola bera indartzea ekarri dezake.

Kontuan hartu behar da kirol egiturak oso maskulinizatuak daudela oraindik ere. Vizcarra, Lasarte eta Martinezek (2020) dioten bezala, erreferente nagusiak oraindik ere gizonezkoak dira. Emakumezko erreferenteak sortzen ari diren arren, beharrezkoa da horiek sustatzea. Adibidez, kirolarietaz ari garenean, emakumezko kirolariak aipatzea edo kirol zehatz baten lanketa egin behar denean, emakumezko kirolarien bideoak jartzea besteak beste.

Hasteko, eskola kirola eta gorputz hezkuntza ikasgaiak, helburua biek berdina izanik ere, jarduera fisikoa, ezberdintasun nabarmen batzuk badituzte gaia lantzerako orduan. Ezberdintasun horiek generoari dagokionez nabariak dira, besteak beste, gorputz hezkuntzan gela bereko kideak egoten direlako (neska-mutilak) eta aldiz, eskola kirolean gehienetan behintzat banatuta egoten dira.

Bi ikuspuntu egon daitezke arlo honetan, alde batetik Irakasle 1ek bereiztearen aldeko apustua egiten du eta aldiz, irakasle 2 mixtoaren aldekoa da. Horrela, Azurmendik (2017) dio, talde mixtoak izateak ez duela genero berdintasuna bermatzen eta eskola kiroleko nesken parte hartzea ere baxuagoa izatea ekar dezakela.

Axularren kasuan adibidez, eskola kirolan banatu egiten dira eta nesken eta mutilen parte hartze datuak oso onak dira. Hala ere, erabaki hau tokian tokiko baldintzen arabera izango da. Baldintzarik egon ezean, mixtoaren aldeko hautua egiteak berdintasuna lortzeko bidean urrundu egin gaitzake. Beraz, nire ustez, irizpide zurronek ez dute laguntzen prozesu honetan. Gakoa, talde mixto edo bereizitakoa izanda ere, genero berdintasuna kontuan izatea eta lantzea da.

Egia da, azken helburua nire iritziz eskola kirola mixtoa izatea dela. Horretarako Irakasle 1ek eta Ayuso eta Nuñez (2008) dioten bezala, martxan jartzeko dauden proiektu horiek gauzatzea oso interesgarria da, proiektu horien lanketan, neska-mutilak elkarrekin arituko baitira. Egitasmo horietan, trebetasun eta abilezia ezberdinak

landuko dira. Horrela, Gorputz Hezkuntzarekin lotura izan dezaketen saio horiek beti egin izan diren kirol jarduera ezberdinak ordezkatzeko dituzte.

Hala ere, eskola kirola tradizionala egiten den bitartean nik irakasle lek eta Azurmendik (2017) dioten bezala, eskola kirolean bereizi egingo nituzke.

Gainera, genero berdintasuna sustatzeko proiektu ezberdinak ere nahikoa traba jasaten dituzte. Azken urteotan eman diren aurrera pausuen aurrean guztietako erreakzioak agertzen ari dira. Adibidez, Nafarroan ezarri nahi zen Skolae proiektuaren baliogabetzea.

Axular Lizeoaren datuak aztertuta Eskola kirolean oraindik ere, mutilen parte hartzea handiagoa da. Hala ere, nesken parte hartzea oso altua dela ere ikusten da eta orokorrean bai neska eta baita mutilen datuak ere oso onak eta interesgarriak dira. Ordea, aditu batzuk diote, Amiama (2016) eta Otegi (2018) adibidez, datuak kontuan hartuta, oraindik ere nesken parte hartzea eskola kirolean askoz ere baxuagoa dela mutilena baino.

Horrekin loturik, Irakasle lek dio ebaluatzeko eredu ere asko aldatu dela azken urteotan eta horrek genero berdintasunarekiko onurak ekarri dituela. Duela urte batzuk gaitasun fisikoetan oinarrituta zegoen ebaluazioa gaur egun aldiz jarrera edo motibazioa da gehien baloratzen den ezaugarria.

Gaur egun, kirol aukera oso zabala da eta horrek emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzea pixkanaka gerturatzen joatea ekarri du. Aukera horren zabala izanik, Gorputz Hezkuntzako irakasleak eta eskola kiroleko arduradunak geroz eta formazio hobetua dute. Horrela, emakumeek ere geroz eta aukera gehiago dute jarduera fisiko ezberdinak egiteko, irakasleak aukera berdintasuna eskaini eta sustatzea izango duela helburu. Hala ere, gai honen inguruan ez dago formula magikorik eta horretarako, etengabeko prestakuntza da formularik onena.

## **7.-Erreferentziak**

Amiama, J. (2016) *Nesken partaidetzaren analisia eskola kirolean*. [Gradu amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea

- Andreu. (2020). Actividad física y efectos psicológicos del confinamiento por Covid-19. *Infad*, 2 (1), 209-220.
- Ayuso, J.A., eta Núñez, M.A. (2008). Aplicación didáctica del juego para la eliminación de estereotipos sexistas. *Efdeportes*, 125. Hemendik berreskuratua: <https://www.efdeportes.com/efd125/aplicacion-didactica-del-juego-para-la-eliminacion-de-estereotipos-sexistas.htm>
- Azurmendi, A., eta Murua, A. E. (2010). *Estudio desde la perspectiva de género sobre la situación de las deportistas de alto nivel de la CAPV*. Eusko jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia. Hemendik berreskuratua: [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/deportistas\\_alto\\_nivel/es\\_al\\_toniv/adjuntos/informe\\_20101103.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/deportistas_alto_nivel/es_al_toniv/adjuntos/informe_20101103.pdf)
- Azurmendi, A. (2017). *Eskola kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatuta: datuetan oinarritutako proposamena*. Avento Asesoria. Hemendik berreskuratua: <https://www.argia.eus/fitx/bestelakoak/EK-mistoa.pdf>
- Barbeira, S., Navarro, R., eta Rodríguez, J.E. (2017) Hábitos deportivos y de actividad física en escolares de educación primaria en función de la edad y el género. Orientaciones desde el área de didáctica de la educación. *Emásf*, 8(44), 94-111.
- Beas, C. (2018) *Mujeres y deporte: Un partido contra la desigualdad*. [Gradu amaierako lana]. Sevillako unibertsitatea
- Berasategi, N., Idoiaga, N., Dosil, M., Eiguren, A., Pikaza, M., eta Ozamiz, N. (2020). Las voces de los niños y de las niñas en situación de confinamiento por el COVID-19. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitatea. Hemendik berreskuratua: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USP00202291.pdf>
- Estadística de deporte federado* (2020). Hemendik berreskuratua: <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:6b7e9a1a-e3e5-4b45-8ae5-6f187b50235f/estadistica-de-deporte-federado.pdf>
- Fernández, E. , Camacho, M.J., Vázquez, B., Blandez, J., Mendizábal, S., Rodríguez, M. I., Sánchez, F., Sánchez, M., eta Sierra, M.A. (2010). *Guía Pafic*. Instituto de

la mujer del ministerio de la igualdad. Hemendik berreskuratua: <https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/AreaDeporte/docs/MaterialesDidacticos/GuiaPAFIC.pdf>

Fernández-Vilariño, M.A., eta López-Villar, C. (2012) *La participación de las mujeres en el deporte. Un análisis desde la perspectiva de género*. I e II ciclo de conferencias: xénero, actividade física e deporte. A Coruña: Universidade, 2012, p. 15-29

Hemendik

berreskuratua:

<https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/9078/ActasGEXAFD3.pdf>

Gallego, B. (2014). La igualdad de género en la práctica deportiva y su contribución a la educación para la ciudadanía y la democracia. *Journal for Educators, Teachers and Trainers*, 5(3), 191–203.

Leruite, M.T., Martos, P., eta Zabala, M. (2015). Análisis del deporte femenino español de competición desde la perspectiva de protagonistas clave. *Retos*, 28, 3-8

Martínez, J.-M. (2009). Evolución del papel de la mujer en el movimiento olímpico internacional. I Congreso virtual sobre historia de las mujeres. Hemendik berreskuratua:

<file:///C:/Users/usuario/Downloads/Dialnet-EvolucionDelPapelDeLaMujerEnElMovimientoOlimpicoIn-4098816.pdf>

Martínez-Abajo, J., Vizcarra, M.-T., eta Lasarte, G. (2020). Percepción de las deportistas de su trato mediático. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 139,73-82.

Ministerio de cultura y deporte Gobierno de España (2020). *Licencias federadas según sexo por federación*. Hemendik berreskuratua:

<https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:4b866486-1c11-4dc4-a528-8611c431a7e7/licencias-federadas-por-sexo.pdf>

Naberan, M. (2017). *Emakumeak eta kirola: badaude genero-estereotipoak Lehen Hezkuntzan?*. [Gradu amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea

Olivera, J. (2012). Juegos Olímpicos Londres 2012: la olimpiada de las mujeres\*. *Apunts*, 109, 7-10

- Otegi, A.(2018) *Eskola Kirola Irunen: Genero dibertsitatearen azterketa & Proposamen alternatiboa*. [Gradu amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Rodríguez, D., Martínez, J.M., eta Mateos, C. (2004) *Identidad y estereotipos de la mujer en el deporte. Una aproximación a la evolución histórica*. *Revista de investigación en Educación*, 2, 109-126.
- Rojas, J.L. (2010). La construcción de las noticias deportivas desde una mirada androcéntrica. De la invisibilidad a los estereotipos de la mujer deportista. *Vivat academia*, 113, 122-136.
- Sánchez, C., Chiva-Bartoll, C., eta Ruiz-Montero, P.J. (2016). Estereotipos de género y educación física en educación secundaria. *Athlos*, 11(5), Z.G.
- Santos Guerra, M.Á., Arenas, G., Blanco, N., Castañeda, R., Hernández Morales, G., Jaramillo, C., Moreno, E., Oliveira, M., eta Simón, M.E. (2000). *El harén pedagógico*. Hemendik berreskuratua: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=3Xt4L7IeagEC&oi=fnd&pg=PA11&dq=escuela+genero+diferencia+de+trato&ots=AovPID9ap3&sig=G5ZAHBg0kLA4KfxFuqIDSpvyTRY#v=onepage&q=escuela%20genero%20diferencia%20de%20trato&f=false>
- Serra, P., Soler, S., Villanova, A., Hinojosa-Alcalde, I. (2019). Masculinización en estudios de las ciencias de la actividad física y el deporte. *Apunts*, 135, 9-25
- Uribarri, G. (2020) *Eskola-kirola: Estereotipoetan oinarritzen jarraitzen dugu?*. [Gradu amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Vizcarra, M.T; Macazaga, A.M; Rekalde, I. (2006). ¿Con qué deporte escolar sueñan las familias?. *Apunts*, 4, 97-107



## 8.-Eranskinak

Elkarrizketaren gidioa:

### GALDETEGIA

Genero perspektiba eta kirola

- 1- Kirolean berdintasuna dago ? Kirolak berdintasunean laguntzen du edo aldiz desberdintasunak areagotzen ditu?
- 2- Emakumeen presentzia kirolean asko hazi da, zeri dagokio zure ustez?
- 3- Jarduera fisikoa egiteko aukera gehiago dute gaur egun emakumeek?
- 4- Kirola/jarduera fisikoa tresna egokia da berdintasuna bultzatzeko?

Generoa Gorputz Hezkuntzan

- 1- Zure ustez Gorputz Hezkuntzan berdintasuna sustatzen da?
- 2- Generoari dagokionez nolakoa zen duela 30 urteko Gorputz Hezkuntza ikasgaia?
- 3- Eta gaur egun?
- 4- Zein dira ikusten dituzun aldaketa nabarmenenak? Eta aldaketa horiek bultzatzeko zein izan dira oinarri nagusiak? Noiz esan dezakezu izan zela aldaketa gertatzen hasi zen unea?
- \*- Zure ustez aldaketak ez badira egon, zeintzuk dira eman beharko liratekeen aldaketak berdintasun erreal batera ailegatzeko? Zer egin daiteke nesken parte hartzea sustatzeko kirol guztietan?
- 5- Gorputz hezkuntza programatzean kontuan hartzen da generoa? Programazio orekatua egin behar da gaitasun desberdinak garatzeko ezta. Zergaitik?
- 6- Eta duela 30 urte kontuan hartzen zen?
- 7- Garapen horretan neska eta mutilen erantzuna berdina izan da?

8- Genero desberdintasunari dagokionez, aldaketak ikusten dituzu LH, DBH eta Batxilergoko ikasleen artean?

9- Neska eta mutilen artean aldaketak daude notan?

10- Generoarekiko formazioa izan duzu? Zer nolako formazioa izan da? Benetan, klaseetan eragina izan duela uste duzu, aldaketak lortu dira klasean?

Genero eskola kirolean

1- Zure ustez eskola kirolean berdintasuna sustatzen da?

2- Generoari dagokionez nolakoa zen duela 30 urteko eskola kirola?

3- Eta gaur egun?

4- Zein dira ikusten dituzun aldaketa nabarmenenak? Eta aldaketa horiek bultzatzeko zein izan dira oinarri nagusiak? Noiz esan dezakezu izan zela aldaketa gertatzen hasi zen unea?

\*- Zure ustez aldaketak ez badira egon, zeintzuk dira eman beharko liratekeen aldaketak berdintasun erreal batera ailegatzeko? Zer egin daiteke nesken parte hartzea sustatzeko kirol guztietan?

5- Generoarekiko formazioa jaso duzu?

6- Non ikusten duzu desberdintasun gehiena eskola kirolean ala Gorputz hezkuntza ikasgaietan?

7- Generoaren lanketa egiteko arlo garrantzitsuagoa eskola kirola ala Gorputz hezkuntza dela esango zenuke? Zergaitik?

Covida

1- Martxoan konfinamendua ezarri zenean, nola moldatu zineten Gorputz Hezkuntza etxetik egiteko? Eta bertan erantzun ezberdinak nabaritu zenituzten mutilen eta nesken artean?

2- Eta aurten, klaseak ematean portaera aldaketa nabaritu duzue haurrengan?

3- Covidak nola eragin du aurtengo programazioan? Erantzun berdina izan dute neska eta mutilek?

4- Autore eta ikerlari batzuek sektore femeninoari gehiago eragin diola diote. Eskola kirola egiterako orduan alde nabarmenik nabaritu duzue? Haurrek eskola kirola gutxiago egiten dute orain?

Etorkizuna

1- Etorkizunera begira zer egin beharko genuke?

2- Epe motzean berdintasuna lortuko da? Eta epe luzean?